

Oier Araolaza

DANTZARIA

Telefonoaren doinura

Eskuko telefonoak edozertarako balio du. Argazki kamera da, bideoa, gpsa, irratia, jokoa, ordularia, mp3a, egutegia.. eta batzuetan telefonoa ere bai.

Gure etxepean gazte dezente biltzen da arratsaldetan. Jeniffer, Izaro eta Ainhoa aparte jartzen dira, segapotoan musika ipini eta dantzan aritzen dira. Beyonce edo Britney Spearsen bideoak ikusten dituzte eta koreografiak imitatuz ikasi eta dantzatzen dituzte. Gure kaletik hurbil Abontza deitzen dioten etxe-ingurua dago. Eibar-ko eremu berde handiena dago bertan. Abontzako etxepeetan elkartzen dira Aner, Pedro Alfonso eta Yerai. Hip-hop doinuak ateratzen dira Anerrren telefonotik eta break-dancean trebatzen aritzen dira.

Britainia Handian ia bost milioi lagunek egiten du dantza. Futbolaren ondoren jende gehien erakartzen duen aktibitate fisikoa da. Dantza-klasikoa, garaikidea, aretoko-dantza, bio-dantza, break-dancea, sabel-dantza... Aukera-sorta zabal guzti hori, ia berbera da munduan barrena. Abontzan hip-hop egiten duenaren lengo-
aia bera darabil Brixtonen edo Magentan dantzatzen duenak.

Ahozko lengoia, euskara, normalizatzeko kalera atera eta testuinguru guztietan erabiltzearen garrantziaz ohartuta gaude.



DANI BLANCO

Gure lengoia koreografikoa ere, euskal dantza, gutxitasun egoeran dago. Euskara bera baino baldintza okerragoetan dagoela esango nuke gainera, ez baitu haren errekonozimendurik, ez zaio aitortzen balio handirik eta gainera ez dago dantza egoera diglosikoan egon daitekeenaren kontzientziarik. Euskal Kultura zer den eta zer ez den definitzen denean hizkuntza, euskara, izaten da irizpide sendoena. Hitzeko komunikazioa erabiltzen ez duten lengoiaik definizio horretan bigarren mailan, itzalean geratzen dira. Dantza euskal kulturaren osagai dela ez da zalantzan jartzen, baina ez da lehentasunen zerrendan ageri.

Herri batzuetan hasi dira batzuk radiokasete handia kalean jarri eta euskal dantzak egiten. Donostian, Bulebarrean ikusi ditugu orain gutxi. Gure etxepean oraingoz Beyoncerekin jarraitzen dute. Abontzako eremu berdea berreskuratu eta telefonoaren doinura Jeniffer, Izaro eta Aner mutxikoak dantzatzen hasten ez diren bitartean etorkizun beltza izango du euskal dantzak. Euskararen egoera arduraz bizi dugu, zer esanik ez zenbaitek museora kondenuatu nahi duela antzematen dugunean. Dantzarekin ez dugu kezka hori, museoetan ere ez baitago tokirik beretzat. ■

«
Dantza euskal kulturaren
osagai dela ez da zalantzan
jartzen, baina ez da
lehentasunen
zerrendan
ageri



TXANDAN

Juan Ramon Mankuso



Udaberriak neguko iluntasunetik ateratzen gaitu; udaberria kimu berrien sinboloa da; gereziondoa da horren erakusle aparta. Eta udaberrian, Senperen, *Hatsaren Poesia* bilkura ospatzen da –jada hamabigarrenez– eta bertan poesiak hartzen du atsedena.

Egunak baditu bere sinboloak. Senperera joateko Gipuzkoatik elkartzen garen lagunok gure bidaiatxo egiten dugu. Turismoa gaur egun hain garatua dagoenean, gure lurraldeak zeharkatzeak badu xarma puntu bat. Senperera iritsita eskuen artean jasotzen

Udaberriko poesia

dugu urteroko liburua, pertsona ezberdinek bidalitako poemez osatua. Hitzaurreak hasiera ematen dio liburuari. Hitzaurre hau norik egin behar duen han biltzen garenon artean erabakitzen da urtero, zozketaren bitartez.

Aurten hitzaurrea irakurri ondoren, paperezko tximeleta hegalarri batzuk gureganatu genituen. Udaberriarekin batera tximeletak. Partaideen izenak agertzen ziren bertan. Tximeletak han agertu ziren, den-denak lurtean pausatutik. Gure artean bi mutiko zeuden. Bietako batek jaso zuen tximeleta bat; hurrengo urteko hitzaurregilearen izena zeraman. ■